

GALDAKAOKO ENPRESA ZENTROAREN ILDO ESTRATEGIKOAK AURKEZTU DIRA

Posted on 18/12/2023 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Ciudad y territorio innovador](#), [Galdakao](#), [Promoción económica local y territorial](#)

Abenduaren 15ean, Galdakaoko Enpresa Zentroaren ildo estrategikoak aurkezteko jardunaldian parte hartzeko aukera izan genuen. NAIDERetik [Galdakaoko Udaleko](#) Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailarekin egin dugu lan udalerriko produkzio-sarea dinamizatu nahi duen zentro berri honen helburuak eta jardun-arloak zehazten. Horrela, Enpresen Zentroaren helburu nagusia Galdakaoko garapen ekonomikoa bultzatzea da, bertako enpresei laguntza emanez, Udaleko Ekonomia Sustapenaren Arloak garatutako gaitasunak eta jarduerak indartuz eta zabalduz, tokiko berrikuntza- eta prestakuntza-gaitasunak aprobetxatuz, industrialdeak hobetuz eta modernizatuz, eta elkarlaneko gobernantza-eredu bat hedatuz, enpresa-garapenarekin lotutako udalerriko erakunde nagusien parte-hartzearekin.

Jardunaldian parte hartu zuten Udaleko gobernu taldeko kideek, alkatea barne, [Andra Mari LH](#)ko zentroko eta [Galdakaoko Ostalaritza Eskola](#)ko irakasleek, bai eta NAIDERekin Enpresa Zentroaren jardun-arloak identifikatzen lagundu duten enpresetako ordezkariak ere. Era berean, lan-dinamika interesgarri bat garatzeko baliatu zen jardunaldia, gunea datorren urtean lantzen hasia espero den jardun-arloei lehentasuna emateko.



